

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

**8/2020 Foru Araua, ekainaren 10ekoa, 5/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, maiatzaren 12koa, baliozkotzeko dena, onesteko Arabako zerga-araudia egokitzea ekonomia eta enplegua babesteko premiazko neurri osagarriei buruzko apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretura**

Arabako Batzar Nagusiek, 2020ko ekainaren 10ean egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

8/2020 Foru Araua, ekainaren 10ekoa, 5/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, maiatzaren 12koa, baliozkotzeko dena, onesteko Arabako zerga-araudia egokitzea ekonomia eta enplegua babesteko premiazko neurri osagarriei buruzko apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretura.

#### HITZAURREA

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zerga Orokorrari buruzkoa- 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorriz, Foru Gobernu Kontseiluak onartu du, presazko arrazoiak direla-eta, 5/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, maiatzaren 12koa, onesteko Arabako zerga-araudia egokitzea ekonomia eta enplegua babesteko premiazko neurri osagarriei buruzko apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretura.

Aipaturiko 8. artikulua 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Batzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda, Batzar Nagusietako Osoko Bilkurak baliozkotze akordioa hartuta eta 2013ko apirilaren 22ko Arabako Batzar Nagusietako funtzionamendu araudia aldatzeko 17/2013 Foru Arauaren 147. artikulua arabera, bidezkoa da aipatutako Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko foru araua ematea.

**ARTIKULU BAKARRA.** Baliozkotuta geratu da 5/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, maiatzaren 12koa, onesteko Arabako zerga-araudia egokitzea ekonomia eta enplegua babesteko premiazko neurri osagarriei buruzko apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretura.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 10a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**